



**2010EKO IRAILAREN 30EKO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko irailaren hogeita hamarrean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Ángel Hernández Marzal zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da M<sup>a</sup> Lourdes Garmendia Guerra zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2010eko uztailaren 29an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- ESTALI GABEKO IGERILEKUEN OBRA OSAGARRIEI DAGOKIEN OBRA EGIAZTAGIRIA.-**

Lanen obra zuzendaritza eraman duten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren aldamenen eraikitakon Estali Gabeko Igerilekuak Obra Osagarriei dagokien lanen obra-egiaztagiria luzatu dute. Egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA ZAZPI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO eta HIRUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMOTakoa (147.784,71 €) da. Lan hauek Altuna y Uria, S.A. enpresak burutu ditu.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.



Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Estali Gabeko Igerilekuen eraikuntzaren Obra Osagarrien obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

#### IV.- "KIROLDEGIAN ARKITEKTURA OZTOPOAK KENTZEA" LANEN LEHENENGO, 2. ETA 3. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren Arkitektura Oztopoak Kentzea lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek lanen lehenengo, bigarren eta hirugarren obra-egiaztagiriak luzatu dituzte. Lehenengo obra egiaztagiriaren zenbatekoa HEMEZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO eta BERROGEITA BI ZENTIMOTAKO (18.796,42 €) da, bigarren obra-egiaztagiriaren zenbatekoa BERROGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI EURO eta HIRUROGEI ZENTIMOTAKO (54.877,60 €) eta 3. obra egiaztagiriarena berriz BERROGEITA HIRU MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HEMERETZI EURO eta HIRUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO. Lan hauek Construcciones Artzamendi, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Lehenengo obra-egiaztagiriak 2010eko abuztuaren 2an izan zuen sarrera udaletxean eta abuztuan osoko bilkurarik egiten ez denez, atzerapenak ekiditu eta ordainketa epeak bete zitezten, alkatetzaren ebazpen bidez onartua izan zen 2010eko abuztuaren 16an, eta orain osoko bilkura honen aurrera ekartzen da, honek bere onespena eman dezaion.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren Arkitektura Oztopoak Kentzea lanen lehenengo onarpena berretsi eta bigarren eta hirugarren obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.

Une honetan Lurdes Garmendia zinegotzia bertaratu da.


#### V.- 2009KO KONTU OROKORRA.-

2009 ekitaldiko Kontu Orokorra Kontuetaarako Batzorde Berezian aztertu eta informatua izan zen 2010eko uztailaren 20an, honek egindako bilkuran.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2010eko uztailaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2009 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

Kontu Orokor honek udalaren 2009ko Kontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anonimoaren 2009ko urteko kontuak hartzen ditu barne.





**VI.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-**

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedienteak irakurri dira.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedienteak aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharrezkoak eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Kreditu Aldaketa espediente honetan barneratzen diren hainbat kontzeptuei buruz dauden argibide eskakizunei erantzuna ematen zaie baita ere.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako hau

**ERABAKI DA**

**Lehenik.**- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espedienteak onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluakako laburpenaren arabera:

**KREDITU GEHIKUNTZAK**

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
I	Pertsonaleko gastuak	69.101,7 €
VI	Inbertsio errealak	536.937,56 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>606.039,26 €</b>

**FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK**

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
IV	Transferentzi arruntak	69.101,70 €
VII	Kapital transferentziak	528.437,56 €
VIII	Aktibo finantzarioak	8.500,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>606.039,26 €</b>

**Bigarren.**- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.



## VII.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Ogasun Batzordearen Presidenteak hartzen du hitza eta esaten du orokorrean zergak bere horretan uztea planteatzen baldin bada ere, zerbitzu horietako udalez gain dauden erakunde kudeatzaileek planteatzen dituzten igoerak bultzatuta, ura %3 igotzea planteatzen dela eta zabor bilketa zebitzua %8. Bestalde Kiroldegiko zerbitzuetako tasak Kontsumo Prezioen Igoeraren araberrako igoera, hau da %1,7, planteatzen da, lehendik ere defizitarioak diren zerbitzuetan zuloa handitzen joan ez dadin. Eta azken honi buruz, gehitzen du, hemendik urte bukaera bitartean kiroldegiko sarrera eta gastuei buruzko hausnarketa egin nahi dela. Azkenik, bi aldaketa tekniko planteatzen dira, bat esne makinarekin herri bidea okupatzeagatik tasa finkatzearena eta bi bai kasu honetan eta bai azoka zerbitzuagatik tasa bertako nekazal produktuen salmentaren kasuan %95eko hobaria finkatzea.

Saldaña zinegotziak (Alternatiba) esaten du ados dagoela zergak bere horretan uztearen planteamenduarekin baina esaten du kasu guztietan gizarte ikuspegitik aztertu behar liratekela, familiz famili, eta behartsuenei erreztasunak eman.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ontzat ematen dutela kiroldegiko azterketa egitearena eta bestalde eta ordenantzen aldaketen proposamenari buruz, ados daudela tasa gehienak ez igotzearekin baina, eta zein egoeratan gauden ikusita, udalak bere gain hartu beharko lituzkela, maila batean behintzat, kostuen igoerak eta ez bakarrik %0,5ean, eta proposamen ona litzatekela ura eta zaborra KPI bakarrik igo eta alde hori datozen urteetan errekuperatuko litzakela.

Estensoro zinegotziak erantzuten dio aztertu den gauza izan dela hori baina egin den hausnarketa izan dela gaur egungo egoerak batzuk ukitzen dituela baina ez beste batzuk eta egokiagoa litzakela batzu horiei erantzutea gizarte zerbitzuetatik.

Gaia aztertu ondoren, eta Ogasun Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 10 botu (EAJ, Alternatiba, PP), aurkako boturik gabe eta bi abstentzioz (PSE-EE), honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Akordio honen azalpenean aipatutako eta bere espedientean aurkitzen diren ordenantza fiskalen aldaketa, hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
- 3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betiko bihurtzat joko da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

## VIII.- TAXIEN HIRI-TARIFEN ALDAKETA.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2011 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdina planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIren bidez izapidatu nahi dira.





Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreren azterketa bidali dute baita ere.

Datorren urterako proposamenak zera aurrakusten du: oraingo tarifak urtearteko abuztutik abuztura bitarteko K.P.I.an igotzea.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

HIRI - TARIFA (2010)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
3,1129	0,9745	18,6138	3,1129	1,5542	29,2547

Saldaña zinegotziak (Alternatiba) esaten du bera planteatzen den igoseraren aurka dagoela ez delako garai egokia igosera egiteko.

Guzti hau kontutan izanda, gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aldeko 11 botu (EAJ, PSE-EE, PP) eta aurkako botu batez (Alternatiba), honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- 2011 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA (2011)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
3,1658	0,9911	18,9302	3,1658	1,5806	29,7521

\* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da

\*\* Tarifa hau egunero 22:00etatik 7:00etara, eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan eta halaber larunbatetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.

2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidatu dezan.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak horretarako baimena eman ondoren, Angel Eztalak esaten du ez daudela tarifak igotzearen aurka baina beraiek K.P.I.ren araberako igoera planteatuko luketela ez gehiago.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



*[Handwritten signature in blue ink]*

